

## ELIKATZEKO ESKUBIDEARI BURUZKO 10 GALDERA

### 1. Zer da elikatzeko eskubidea?

Gizabanako nahiz giza talde orok, aldizka eta etengabe, elikagai kuantitatiboki eta kualitatiboki egokia eta nahikoa eskuratzeko eskubideari eta elikagaiok ekoizteko beharrekoak diren bitartekoak eskuratzekoari deritzo elikatzeko eskubidea, herrian herriko kultur tradizioekin bat datorrela, betiere, gizabanakook nahiz giza taldeek fisikoki nahiz psikikoki bizimodu ona eta duina izan dezaten.

### 2. Zer hartzen du barne elikatzeko eskubideak?

Nazio Batuetako Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak 12. ohar orokorrean xedatutakoaren arabera, elikatzeko eskubidea honako elementu hauek osatzen dute:

- *Elikadura nahikoa*: bizi zikloko garai guztietan, eta sexua nahiz lanbidea kontuan hartuta, gizakion behar fisiologikoak (gorputz eta buru hazkuntza, garapena, mantentzea eta jarduera fisikoa) asetzeko adina elikagai ematen duen elikadura.
- *Egokitasuna*: elikatzeko eskubidea betetzeko, elikagaiak nahiz elikagaien jan neurriek egokiak izan behar dute bai leku eta bai garai jakin bakoitzeko egoera sozial, ekonomiko, kultural, klimatiko, ekologiko eta bestelakoetarako.
- *Jasangarritasuna*: oraingo nahiz geroko belaunaldiak elikagaiak eskuratzeko aukera izan behar dute.
- *Kaltegarri ez izatea*: elikagaiak substantzia kaltegarririk gabeak izan behar dute; eta, horretarako, behar-beharrezkoa da eremu publikoetatik nahiz pribatuetatik zenbait babes neurri hartzea, inguruneke higiene kaskarra edota aizuntzea direla medio edo kateko zernahi etapetan elikagaiak oker maneiatzearen ondorioz kutsa daitezzen eragozteko.
- *Kulturak errespetatzea*: elikagaiak tokian tokiko kulturarentzako nahiz kontsumitzaile jakinentzako onargarriak izan behar dute; eta, beraz, kontuan izan beharrekoak dira, halaber, ahal den neurrian behintzat, nutrizioarekin zerikusirik ez duten baina elikagaiekin eta elikagaiak jan-edatearekin lotuta dauden balioak, bai eta kontsumitzaileek, eskura dituzten elikagaien nolakotasunari buruz, agertzen dituzten kezkek ere.
- *Baliabideak izatea*: gizabanako orok elikatzeko ahalak izatea, bai zuzenean, laborantza lurak edo elikagaien beste iturri natural batzuk ustiatuz, edo bai zeharka, behar bezala dabilzan eta elikagaiak ekoizpen gunetik eskaeraren arabera behar diren lekuetara eramango dituzten banaketa, prestaketa eta merkaturatze sistemen bitartez.
- *Ahal izate ekonomikoa*: jan neurria egokia izateko beharrezkoak diren elikagaiak eskuratzeko norbanakoari nahiz familiari diruz dakartzkion kostuek neurritzekoak izan behar dute, oinarritzko beste behar batzuk ase ahal izatea kolokan edo arriskuan egon ez dadin.
- *Ahal izate fisikoa*: elikagai egokiak den-denen eskura egon behar dute, une eta egoera orotan egon ere.

### 3. Zer-nolako eragina du elikatzeko eskubidea egiaz bermatzeak?

Egin diren azken kalkuluaren arabera, 1998-2000 arteko denboraldian 840 milioi lagun zeuden eskas elikatuta munduan: 11 milioi lagun, herrialde industrializatuetan; 30 milioi, trantsizioan ziren herrialdeetan, eta 799, garapen bidean direnetan. Datu horiei jarraituz, beraz, garapen bidean diren herrialdeetan 20 milioi lagun gutxiago soilik daude eskas elikatuta 1990-92 denboraldiaz geroztik; hau da, urteko 2,5 milioi lagun gutxiago baino ez<sup>1</sup>. Dena dela, 1997-1999 eta 1998-2000 denboraldiak alderatuz gero (hiru urteko azken bi denboraldiak, hain zuzen), garbi ikusten da munduan 15 milioi lagun gehiago daudela eskas elikatuta bi denboraldi horien artean. Gainera, garapen bidean diren 61 herrialdeetatik 26tan eskas elikatutako lagunen kopurua txikitu egin bazen ere, kopuru absolutuak handitzen jarraitu du<sup>2</sup>.

Alabaina, egoera hori ez dator bat, inondik ere, biztanleko elikagai kopuruarekin. Izan ere, Euronaid erakundearen datuen arabera, biztanleko elikagai kopuruak %20 egin du gora 1960. urteaz geroztik. Gainera, FAOren arabera, 12.000 milioi lagun elikatzeko adina elikagai ekoitz ditzakegu; hots, gizabanako bakoitzari, egunero, 2.700 kaloriaren baliokidea emateko behar beste elikagai.

1990ean, mundu mailan malnutrizioak eragindako produktibitate sozialaren galera minusbalio-tasunik gabeko 46 milioi urteko bitzta produktibokoa izan zen.

### 4. Nola dago araututa elikatzeko eskubidea, nazioarte mailan?

Elikatzeko eskubidea Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasota dago, 25. atalean: "Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berak eta bai bere familiak bermatuta izan ditzaten osasuna nahiz ongizatea eta, batez ere, janaria, jantziak, bizitokia, mediku sorospena eta gizarte zerbitzuak; eta eskubidea du, halaber, lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo nahi gabe bizibidea galtzeko beste zerbait gertatzen denerako aseguruia izatekoa ere."

Elikatzeko eskubidea bigarren belaunaldiko eskubidetzat hartzen da (eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak dira horrelakoak), eta betetzeari edo ez betetzeari dagokionez, badute desberdintasunik lehen belaunaldikoen aldean. Izan ere, eskubide zibilek eta politikoez (hots, lehen belaunaldikoez) gauza bakarra eskatzen diote tokian tokiko gizarteari: gizabanako bakoitzaren eskubidea ez eragozte. Bigarren belaunaldikoak bermatzeko, ordea, bitarteko ekonomiko itzelak behar dira; eta, beraz, gutxika-gutxika soilik bete ahal izango dira, estatu bakoitzaren ahalbideen eta historiako unearen arabera.

Bai Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren hitzaurrean eta bai Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunarenean, honela aitortzen da: "Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren arabera, ezin da inolaz ere gizaki askea mamitu, beldurretik eta miseriatik aske den gizaki perfektu hori gauzatu, baldin eta gizabanako bakoitzari bere eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak eskubide zibil eta politikoez beste baliak ditzan bidea emango dioten baldintzak sortzen ez badira." Aitortu egiten du, beraz, giza eskubideen bi multzo horien arteko mendekotasuna.

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak betebeharrak ezartzen die estatu sinatzaileei: herritar guztiek elikatzeko eskubidea bermatua izateko helburua lortzeari ahalik eta aisean eta eraginkorren ekitea, hain zuzen.

<sup>1</sup> Elikadurarekiko segurtasun ezaren egoera, 2002. FAO.

<sup>2</sup> FAOren Elikadura Segurtasunari buruzko Batzordearen txostena, 29. bilera aldian aurkeztua. 2003ko maiatzaren 12-14.

## 5. Zer betebehar dituzte estatuek, elikatzeko eskubideari dagokionez?

12. ohar orokorraren arabera, estatuek honako betebehar hauek dituzte, elikatzeko eskubideari dagokionez:

1. *Errespetatzea*: dagoeneko herritarrek elikadura egokia eskuragarri badute, eskuratze hori errespetatzeko betebeharra dute estatuek, hau da, eskuratze hori eragozteka ekarriko duen neurririk ez hartzekoa.
2. *Babestea*: enpresek edo partikularrek herritarrei elikadura egokia eskuratzeko aukera ez dietela kenduko zaindu behar dute estatuek, eta horretarako neurriak hartzeko betebeharra dute.
3. *Erraztea*: zenbait ekimen abiarazten saiatu behar dute estatuek, herritarren bizibidea (besteak beste, elikadura segurtasuna) ziurtatzen duten baliabideak eta bitartekoak eskuratzeko eta erabiltzeko sustatzeko.
4. *Betetzea*: azkenik, gizabanako edo talderen batek ezin badu eskura dituen bitartekoak erabiliz elikadura egokia izateko eskubidea baliatu, betiere bere gain ez dagoen arrazoiren bat medio, estatuek betebehar osoa dute eskubide hori zuzenean betetzeko. Hondamen naturalen nahiz bestelakoen biktima izan direnei ere badagokie.

## 6. Zer konpromiso ditu xedatuak nazioarteak, elikatzeko eskubideari dagokionez?

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean nahiz Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean giza eskubidetzat aitortuta egoteaz gain, FAOk deitu eta 1996an egindako Elikadurari buruzko Munduko Goi Bileran Munduko Elikadura Segurtasunari buruzko Erromako Deklarazioa onartu zen, 1996ko azaroaren 13an. Goi Bileran horretan parte hartu zuten estatuek, deklarazio haren bidez, nazioartearekin elkarlanean Ekintza Plana aplikatzeko, zaintzeko eta hari jarraipena egiteko konpromisoa hartu zuten, 2015. urtea baino lehen eskas elikatutakoen kopurua ordukoaren erdia baino ez izatea lortzeko asmoz. Bost urte geroago, FAOk 2002ko ekainaren 10etik 13ra Erroman antolatu zuen Elikadurari buruzko Munduko Goi Bileran, berriro hartu zuten konpromisoa, eta Milurtekoko Garapen Helburuetako bat da, gainera.

FAOk hainbat ekimen abiarazi ditu, munduan gosearen arazoa errotik desagertu dadin laguntzeko asmoz, guztiak ere. Hona hemen batzuk:

- *Gosearen aurka borroka egiteko programa*: Elikadurari buruzko Munduko Goi Bileraren Ekintza Plana bizkortzeko metodo bat da, eta bi osagai ditu:
  - i) Nekazaritza eta landa garapen jasangarria, giza talde behartsuenen eta ahulenen bizibideak hobetzeko eta horiei laguntzeko.
  - ii) Behartsuenek elikagaiak zuzenean eskuratzeko eta nutrizioa hobetzeko programak.
- *Gosearen aurkako nazioarteko ituna*: Alemaniako Errepublikako presidentek 2001. urtean Elikaduraren mundu egunean egin zuen adierazpena du jatorri, eta helburua, berriz, gosearen eta pobreziaren aurkako borrokan, gogo eta nahi politikoa indartzea.
- *Elikatzeko eskubidearen aldeko borondatezko arauetarako gobernu arteko lantaldea*: talde horren helburua bi urteko epean borondatezko zenbait arau finkatzea da. Arau horiek, esan bezala borondatezkoak, estatu sinatzaileek elikadura segurtasunaren eremuan elikadura egokia izateko eskubidea apurka-apurka lortzeko asmoz egin edo egingo dituzten ahalegiak babestea izango dute xede<sup>3</sup>.

<sup>3</sup> Elikadurari buruzko Munduko Gailurraren azken Deklarazioa: bost urte geroago, Erroma, 2002.

## 7. Oso garestia al litzateke 2015. urtean gosetuen kopurua erdia baino ez izateko helburua erdiestea?

FAOk 2002ko ekainean aurkeztutako proposamenean, Gosearen aurka borroka egiteko programa izeneko hartan, zehatz samar kalkulatu zuten zenbateko inbertsioa beharko litzatekeen 2015. urtean gosetuen kopurua erdia soilik izateko helburua betetzeko. Estatu nahiz nazioarte mailan, nekazaritza eta landa garapenaren bidez nahiz elikagaiak eskuragarriago bihurtuz munduan gosea gutxi dadin ekimenak abiarazteak ia 24.000 milioi dolarreko kostua izango luke, urteko (AEBetako dolarretan); eta kopuru hori, alderatzen hasita, ELGEko estatuek (hots, OCDEkoek) 2001. urtean beren lurraldeko nekazaritza bultzatzeko erabili zuten diru kopuruaren hamabirena baino ez da.

Gosearen aurka borroka egiteko programak alor horri dagokionez lortu beharreko helburuak eta emaitzak garatzen ditu, 5 kapitulutan. Kapitulu bakoitzean kostu ekonomikoen gutxi gorabeherako kalkulua egiten da: 2.300 milioi dolar, nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpena hobetzeko; 7.400 milioi dolar, baliabide naturalak modu jasangarrian sustatzeko; 7.800 milioi dolar, nekazaritzako azpiegituretan eta zerbitzuetan inbertitzeko; 1.100 milioi dolar, elikadurari buruzko hezkuntzarako, eta 5.200 milioi dolar, biztanle ahulenek, egoera okerreanean daudenek, elikagaiak premia eskura ditzaten programak abiarazteko.

## 8. Zer da elikadura subiranotasuna eta zer-nolako eragina izan dezake elikatzeko eskubidean?

Herri orok eskubidea du biztanleria osoaren elikatzeko eskubidea bermatzeko, eta, horretarako, elikagaien ekoizpenari, banaketari eta kontsumoari buruzko norik bere politika eta estrategia jasangarriak finkatzeko. Eta horri deritzogu elikadura subiranotasuna. Politika eta estrategia horiek, betiere, ustiategi txikia eta ertaina izan behar dituzte oinarri, eta errespetatu egin behar dituzte tokian tokiko kulturak eta nekazaritza, arrantza eta indigenen modu askotarikoak, nekazaritzako nahiz abeltzaintzako ekoizpena, merkaturatzea eta landa gunek kudeatzean. Esparru horietan, gainera, emakumezkoak berebiziko eginkizuna betetzen du. Gure iritziz, elikadura subiranotasuna da gosea eta malnutrizioa errotik desagerrarazteko bidea, bai eta herri guztiek elikadura segurtasun iraunkorra eta jasangarria izango dutela bermatzeko bidea ere<sup>4</sup>.

Elikadura subiranotasuna betetzeko, ezinbestekoa da:

- Lehentasuna etxeko eta tokiko merkatuetara zuzendutako elikagaiak ekoizteari ematea, baserriko nahiz familiako ustiategi dibertsifikatuetan eta nekazaritzako ekoizpen sistema ekologikoetan oinarrituta dauden horiei, hain zuzen<sup>5</sup>.
- Nekazariei bidezko prezioak izango dituztela bermatzea. Eta, horretarako, ezinbestekoa da barne merkatuak prezio txikiko inportazioetatik eta "dumping" delakotik babesteko ahala izatea<sup>6</sup>.
- Lurra, ura, basoak nahiz arrantza eta beste ekoizpen baliabide batzuk eskura izan eta erabili ahal izatea, benetako birbanatze baten bidez, ez merkatuko indarren arabera. Azken horien adibide dira, esaterako, "lurraren merkatuaren erreformak", Munduko Bankuak finantzatuak<sup>7</sup>.
- Elikagaien ekoizpenean emakumezkoak duen eginkizuna aitortzea eta sustatzea, eta, bestalde, ekoizpen baliabideen gain kontrola izatea eta horiek eskuratzeko bidezko aukera izatea<sup>8</sup>.

<sup>4</sup> Elikadura subiranotasunari buruzko Munduko Foroaren azken deklarazioa. La Habana, 2001.

<sup>5</sup> Gobernu Kanpoko Erakundearen eta Gizarte Zibileko Erakundearen foroaren deklarazio politikoa, elikadura subiranotasunaren alde. 2002.

<sup>6</sup> Ibidem.

<sup>7</sup> Ibidem.

<sup>8</sup> Ibidem.

- Ekoizpen baliabideen gaineko kontrola tokian tokiko komunitateek izatea, ez korporazioek, lurren, uraren, baliabide genetikoaren eta beste hainbaten jabe diren horiek<sup>9</sup>.
- Elikaduraren eta biziaren beraren oinarri diren aldetik, haziak babestea, nekazariak nahi bezala truka eta erabil ditzaten. Horrela, izan ere, ezin patentatuko da bizia, eta genetikoki aldatuta dauden hazi guztiei, landareen nahiz animalien dibertsitate genetiko hain funtsezkoa murriztea eta kutsatzea ekar dezaketenez, arretaz jarduteko printzipioa ezarri beharko zaie, zorrotz ezarri ere<sup>10</sup>.
- Diru publikoan familien eta komunitateen ekoizpen jarduerak sustatzea, jarduera horiek, betiere, bertakoek elikagaien ekoizpenaren gain ahal eta kontrol handiagoa izatea ekarriko badute; horrela, izan ere, elikagaien ekoizpen hori bertako herrietara eta merkatuetara bideratuta egongo da, nagusiki<sup>11</sup>.

## 9. Zer-nolako eragina izan dezakete elikagai transgenikoek elikatzeko eskubidean?

Lurrean bada gu guztiontzako adina janari, eta, beraz, gosearen arazoari dagokionez, baliabideak banatzeko moduan dago koska. Baina, hala ere, alternatiba elikagai transgenikoak direla esaten digute, emankorrak izanik eta batere aldekoak ez diren egoera klimatikoak ere ondo jasaten dituztenez, elikagai gehiago sortzen lagunduko omen dutelakoan. Kontua da, alabaina, ez dagoela ia azterlan enpirikorik horrelako produktuak kaltegarriak ez direla frogatzen edo ukatzen dutenik; eta, horrenbestez, oraindik ez dakigu elikagai transgenikoak inolako bereizketarik egin gabe erabiltzeak osasunean nahiz ingurumenean zer-nolako ondorioak izan ditzakeen. Arretaz jarduteko printzipioak izan behar du, beraz, elikagai transgenikoei buruzko politika ororen ardatz.

Garrantzi handiko beste alderdi bat ere bada, bestalde: hain zuzen ere, espezie hobetuak nagusi izateak biodibertsitatea urritzeko arriskua dakarrela, eta, gainera, espezie horien haziak herrialde industrializatuetan dauden enpresa gutxi batzuen esku leudekeenez, ekoizpena eta baliabideak ere horien kontrolpean izango direla.

## 10. Zer-nolako eragina dute merkataritzari buruzko nazioarteko akordioek elikatzeko eskubidean?

Elikadurari eta garapen jasagarriari buruzko mundu mailako goi bileretan gosea urritzeari buruzko hainbat deklarazio egin eta konpromiso hartu badira ere, merkataritza akordioek dute eraginik handiena gai horretan, eta, errealitatean, kontraesanetan daude gosea urritzeko helburua lortzearekin.

Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA) berak, Nekazaritzari buruzko Akordioan, deklarazio hau jaso zuen: "Gutxien garatutako herrialdeetan nahiz garapen bidean diren herrialde nagusiki inportatzaileetan erreformen programak izan ditzakeen ondorio kaltegarriak dagokienez, neurriak buruzko deklarazioa". Hartan, garbi onartzen dute gerta litekeela nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen merkataritzari liberalizazio maila handiagoa emateko asmoz burutu nahi den erreforma programak dirauen bitartean zenbait herrialdek (gutxien garatutakoak eta garapen bidean diren herrialde nagusiki inportatzaileak, hain zuzen) ondorio kaltegarriak izatea, kanpotik etorri ohi zaizkien oinarritzko elikagaien kopuru urriari eta horiek inportatzeko baldintzei dagokienez, bai eta oinarritzko elikagaien inportazioa finantzatzeko zailtasunak izatea ere, epe laburrean.

<sup>9</sup> Ibidem.

<sup>10</sup> Ibidem.

<sup>11</sup> Ibidem.

Nekazaritza merkataritzaren liberalizazioak eta MMAren nekazaritza akordioak elikadura segurtasunean zer-nolako eragina izan zuen balioztatu nahian, FAOk azterlan bat egin zuen, 14 herrialderen esperientzia oinarri hartuta. Azterlana 2000. urtean argitaratu zen, eta, haren arabera, nekazaritza eta elikadura liberalizatzeak ondorio hauek izan zituen, funtsean:

- Garapen bidean diren herrialdeei dagokienez, esportazioen kopurua oso gutxi aldatu da, eta esportatu diren produktu motak, berriz, are gutxiago. Horixe da konklusio nagusia.
- Garapen bidean diren herrialde horietan, guzti-guztietan, inportatu behar izan dituzten elikagaien kopuruak izugarri egin du gora, eta bertako ekoizpen sektorea bizkor-bizkor birmoldatu beharra ekarri du horrek.
- Herrialde askotan, nekazarien bizi mailak eta bizi kalitateak okerrera egin du, izugarri egin ere.
- Herrialde guzti-guztietan, merkataritza irekitzearen ondorioz lehia areagotzen hasi zenean, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiek kontzentratzera jo zuten.

Gainera, merkataritzako nazioarteko akordioetan liberalizazioaz aritzen badira ere, kontua oso bestelakoa da, egiaz, eta herrialde garatuak izugarri ari dira babesten bere nekazaritza. Munduko Bankuak emandako datuen arabera, ELGEko herrialdeetan 311.000 milioi dolarreko dirulaguntza eman zaio nekazaritzari, guztira.